

**Xabier
Errementeria
Ortiz**

Barrikako
alkategaia

Candidato
a la alcaldía
de Barrika

ehbildu

**Maite
duzun
Barrika**

EGINGO DUGU.

Beste herri eredu bat posible delako, egin bat aldaketarekin.

Otro modelo de pueblo es posible, ¡apuesta por el cambio!



Inguru zaindua, herri bizia, barrikoztarrontzako aukerak handituz

Por un pueblo amable, más vivo y en marcha por un futuro mejor

EGINGO DUGU.

Marmotaren herria da Barrika. 40 urte baino gehiago daramatzagu kolore bakarreko udal kudeaketarekin, gelditua, ekimenik gabea eta auzokideak albo batera utziz gobernatzen duena. Urteak pasatzen dira, hamarkadak, eta herriak aurrera egiten ez duela ikusten dugu, aukerak galtzen dituela eta ez dituela herritarren beharrianak kontuan hartzen.

Baina nahikoa dela uste dugu. Bada marmota esnatzeko ordua. Eta EH Bildun horretarako prest gaude. Datorren maiatzaren 28an aldaketaren aldeko apustua egiteko aukera duzu, guztion artean, pauso bat aurrera eman dezagun herri hobe baten alde.

Atzean utz dezagun marmotaren eguna

Dejemos atrás el día de la marmota

Barrika es el pueblo de la marmota. Llevamos más de 40 años con una gestión municipal monocolor, estancada, carente de iniciativa y que gobierna dejando a un lado a vecinas y vecinos. Pasan los años, las décadas, y nos encontramos con un pueblo que no avanza, que pierde oportunidades y que no tiene en cuenta las necesidades de la gente.

Pero creemos que ya es suficiente. Ya es hora de que despierte la marmota. Y en EH Bildu estamos dispuestos y dispuestas a ello. El próximo 28 de mayo tienes una oportunidad para apostar por el cambio para que, entre todas y todos, demos un paso adelante por un pueblo mejor.





Gure taldea

Nuestro equipo

🌐 barrika@ehbildu.eus

📺 <https://www.youtube.com/@EHBilduBarrika>



- 1 Xabier Errementeria Ortiz
- 2 Susana Alvarez Peña
- 3 Isusko Bilbao Guibelondo
- 4 Yolanda Contreras Prieto
- 5 Egoitz Fernandez Aznar
- 6 Maialen Llanos Barbarias
- 7 Aritz Zubiate Garay-Yurrebaso
- 8 Amaia Zarraga Alonso
- 9 Jon Nikolas Lopez de Ituiño
- 10 Ainhoa Ardeo Zaldua
- 11 Juan Gandiaga Aguirregomezhorta

Konpromisodun taldea

Proiektu oro pertsonetan oinarritzen da eta gure taldea osatzen dugunok trebetasunak, esperientzia eta ezagutza biltzen ditugu herriaren mesedetan jartzeko.

Askotariko taldea osatu dugu. Gazteak zein ez hain gazteak, lanbide ezberdinetakoak, udal kudeaketan esperientzia daukatenak, elkartegintzatik datozenak edo auzo ezberdinetakoak.

Barrikaren alde egiteko konpromiso argia dugu!

Un equipo comprometido

Todo proyecto se basa en las personas y las que formamos nuestro equipo contamos con habilidades, experiencias y conocimientos para ponerlos en beneficio de nuestro pueblo. Hemos formado un equipo plural, compuesto con personas jóvenes y no tan jóvenes, profesionales de distintos ámbitos, con experiencia en la gestión municipal o provenientes del movimiento popular, y vecinos y vecinas de distintos barrios.

Tenemos un claro compromiso para trabajar por Barrika.


Hirigintza-eredu berri bat: Auzoak zaindu eta lotu, Barrika josiz

HERRIA ZEHARKATUKO DUEN 5 KILOMETROTAKO BULEBARRA, GOIERRITIK LARRETXERAINO, OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ IBILTZEKO, MODU SEGURU BATEAN

Barrika udalerrri sakabanatua da, hainbat auzo ditu eta haien arteko mugikortasuna zaila da, ibilgailu pribatua erabiltzera behartzen duena. BI-3114 errepideak gure udalerrria zeharkatzen du, baina bere helburua ez da auzoen arteko irisgarritasuna hobetzea; aitzitik, hondartzetara azkar iristeko bide bat bilatzen du, udalerrri barruko mugikortasuna are gehiago zailduz.

Barrikan, gaur egun Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzen ari dira eta behin-betikoa onartzeko zain gauden arren proposamen asko planaren etorkizuneko garapenaren zain geratu dira. Hori dela eta, Barrikako herritarren iritzia eta konpromisoa oso garrantzitsuak izango dira, eta entzunaraztea lortu beharko dugu.

Datozen urteetako hirigintza jarduketei buruzko auzotarren iritzia oso beharrezkoak izango dira Barrikak herri gisa aurrera egiteko, zerbitzuak hobetzeko eta herritarrak elkarrekin egoteko espazioak sortzeko. Azken finean, herri gehiago izatea lortzea da helburua.



ZUMARDIA BULEVAR ▲

Oinez eta bidegorriz Elexaldera, Goierriera eta Plentziako metro geltokira iritsiko den bulebarrak eraikitzea.

Construir un bulevar que una, peatonalmente y con bidegorri, Elexalde con Goierri y con la estación de metro de Plentzia.



ELEXALDE ▲

Udaletxea eta elizaren inguruan topaketa eta harreman sozialerako oinezkoen gune bat finkatzea, haurreskola zerbitzuarekin eta kirol ekipamenduekin.

Consolidar un espacio peatonal de encuentro y relación social en torno al ayuntamiento y la iglesia, con servicio de haurreskola y equipamientos deportivos.

Auzotarren iritzia guztiz beharrezkoak dira.

**Entzunaraztea lortu beharko dugu,
etorkizuneko Barrika guztion artean eraikitzeko.**

OTRO MODELO DE PUEBLO ES POSIBLE:

Cuidar e integrar sus barrios, cohesionando Barrika

BULEVAR DE 5 KM QUE CONECTE EL PUEBLO, DESDE GOIERRI HASTA LARRETXE, PARA PODER CIRCULAR TANTO A PIE COMO EN BICICLETA DE UNA FORMA SEGURA



▲ GOIERRI

Auzo barruko sarkide eta igarobideak hobetzea, bidegorria barne. Goierri eta Elexalderen lotura oinezko pasabide baten bitartez, eta Zumarkalearekin loturik. Mejora de los espacios de acceso y tránsito dentro del barrio, incluyendo bidegorri. Unión de Goierri con Elexalde mediante pasarela lateral a la carretera y conexión con el bulevar.



▲ SAN TELMO

Elexaldera sartzeko bide zaharra, bide nagusia berreskuratzea eta Kantarranako jaitisiera hobetzea, Larretxe eskailera irisgarriagoa eginez. Recuperar el antiguo camino de acceso a Elexalde y mejorar la bajada a Kantarrana, haciendo más accesible la escalera de Larretxe.

Barrika es un municipio disperso, con diferentes barrios. La movilidad entre ellos es dificultosa, obligando a utilizar el vehículo privado. La carretera BI-3114 que atraviesa nuestro municipio no tiene como objetivo mejorar la accesibilidad entre los distintos barrios, sino que persigue una vía de acceso rápida a las playas, dificultando aún más la movilidad dentro del municipio.

Actualmente se está tramitando el Plan General de Ordenación Urbana, y aunque estamos pendientes de su aprobación definitiva, muchas propuestas han quedado pendientes del futuro desarrollo del plan, por lo que la opinión y el compromiso de las vecinas y vecinos va a ser muy importante, tendremos que hacer que se nos oiga.

Son muy necesarias las opiniones de vecinas y vecinos sobre las actuaciones urbanísticas que permitan que Barrika avance como pueblo, mejore sus servicios y se logre crear espacios para compartir vecindad y hacer más pueblo.

Las opiniones de vecinas y vecinos son totalmente necesarias.

*Tendremos que hacer que se nos escuche,
para construir entre todas y todos el Barrika del futuro.*

Herria eginez, Barrika hobetzeko ideiak



Batuko gaituzten garraioa eta mugikortasuna **Por un transporte y movilidad que nos unan**

- Egoeraren diagnostikoa eta mugikortasun-plan bat egitea.
- Udalerrri mugakideekiko komunikazioa hobetzea. Metroko geltokietara eta Urdulizko Ospitalera heltzeko autobus zerbitzua.
- Uribe Kostako hainbat udalerrri lotzeko autobusa.
- Auzoen eta udalerrriak dituen zerbitzu guneen arteko lotura hobetzea. Oinez edo bizikletaz mugitzeko aukera sustatzea Barrikako auzoen artean eta, batez ere, segurtasunez udaleko zerbitzu guneetara heltzea. Hori ahalbidetzen duten esku-hartzeak sustatzea, hala nola trafikoa moteltzea.
- Bizikleta elektrikoekiko mailegu zerbitzua
- Auzo taxi zerbitzua ezagutaraztea, handitzea eta hobetzea.
- Autoek hondartzetarako duten sarbidea kontrolatzeko neurriak sustatzea, batez ere udan.
- Udan zerbitzuak gaitzea eta autocarabanen presentzia arautu eta ordenatzea, eta Udalak diru-sarrerak lortzea ahalbideratzea autocarabanentzako eremu bat egokituz.
- Realización de un diagnóstico y un plan de movilidad.
- Mejorar la comunicación con municipios colindantes. Lanzadera a las estaciones del metro y al Hospital de Urduliz.
- Autobús para conectar distintos municipios de Uribe Kosta.
- Mejorar la conexión entre los barrios y los centros de servicios del municipio. Fomentar la posibilidad de moverse andando o en bicicleta entre los distintos núcleos del municipio y sobre todo, para llegar a los centros de servicios con seguridad. Promover intervenciones que lo posibiliten, como amabilizar el tráfico.
- Servicio de préstamo de bicicletas eléctricas.
- Dar a conocer, aumentar y mejorar el servicio de taxi de barrio («auzo taxi»).
- Fomentar medidas para controlar el acceso de los coches a las playas, sobre todo en verano.
- Habilitar servicios y regular la presencia de autocaravanas en verano, consiguiendo ingresos para el Ayuntamiento, a través de la instalación de un área para autocaravanas.

Ideas para un Barrika mejor, haciendo pueblo



Hirigintza eta etxebizitza, herritarron zerbitzura Urbanismo y vivienda al servicio de la gente

- Ekipatutako aisirako guneak, umeentzako estalitako gunea eta auzoen beharren araberako udal lokalak.
- Barrikan erabilera-erregimeneko etxebizitzak sustatzea (iraupen ertain-luzeko emakidak, alokairu merkeak...)
- Kirol-ekipamenduetarako sarbidea erraztea eta zabaltzea.
- Espacios de esparcimiento equipados, zona infantil cubierta y locales municipales en función de las necesidades de los barrios.
- Fomento de viviendas en régimen de uso (concesiones de media-larga duración, alquileres económicos).
- Facilitar y ampliar el acceso a los equipamientos deportivos.

LOKALAK HERRITARRENTZAT

- Udalerriko elkarteei lokalak eskaintzea.
- Kantarranako lokala gazteak elkartzeko eta jarduerak egiteko egokitzea, eta baita helduei ere eskaintzea beren kultura jardueretarako, bai eta udaleko edozein jardueretarako ere.
- Udalerriko gazteentzako lokalak eskaintzea.



UN ESPACIO PARA CADA BARRIO

- Ofrecer locales a las asociaciones del municipio.
- Dedicar el local de Kantarrana para la reunión de grupos de jóvenes del municipio, actividades culturales para adultos y otro tipo de actividad.
- Ofrecer locales a la juventud de Barrika.

***Infraestructuras e
inversiones en función de
las necesidades de la gente.***



Euskararen aldeko urratsa

Normalizar el uso del euskara

- Euskararen erabilera udalaren ohiko jardunean txertatu.
 - Euskararen arnaguneak antolatzen lagundu.
 - Euskara ardatz izango duen kultura agenda askotarikoa sustatu.
 - Barrikako toponimia zaindu eta tokiko toponimiaren lanak sustatzeko, seinaleztatzeko eta balioan jartzeko plana bultzatu.
-
- Utilizar el euskara con normalidad en la actividad ordinaria del Ayuntamiento.
 - Fomentar espacios de uso del euskara en el municipio.
 - Promover el euskara en una agenda cultural rica y diversa.
 - Cuidar la toponimia de Barrika y desarrollar un plan de promoción, señalización y puesta en valor de la toponimia local.



Energia eta hondakinak

Pasos hacia la eficiencia

- Trantsizio energetikoa gauatzeko planak prestatzea (energia aurrezteko estrategiak, etxebizitzaren energia eraginkortasunerako plana, pobrezia energetikoaren plana, garraioaren plan jasangarria, berriztagarrien bidezko udal garraioa, energia komunitateak sustatzea, ...).
 - Hondakinak jasotzeko eta kudeatzeko zerbitzua hobetzea garbiagoa eta arduratsuagoa izateko, ekonomia zirkularra sustatzeko eta auzokideei zerbitzua errazteko.
-
- Elaborar planes para llevar a cabo la transición energética (estrategias para el ahorro energético, planes de eficiencia energética para las viviendas, transporte municipal a través de renovables, fomento de las comunidades energéticas...).
 - Mejorar el servicio de recogida y gestión de los residuos para hacerlo más limpio y responsable, fomentar la economía circular y facilitar el servicio a vecinos y vecinas.



Osasuna erdigunean

Mejoras en el ambulatorio

- Osasun etxearen instalazioak hobetzea.
 - Barrikarako egun osoko asistentzia lortzea.
-
- Mejora de las instalaciones del ambulatorio.
 - Conseguir asistencia de día entero para Barrika.

***Osakidetza bizitzen ari
den eraispenaren aurrean,
kalitatezko osasun zerbitzu
nahiko eta duinak behar
ditugu Barrikan, zerbitzu
publikoa indartuz.***



Ingurune naturala

Protección y puesta en valor del entorno natural

- Ingurune naturala zaintzea, garbi mantentzea eta jarduera ekonomikoen kudeaketa kontrolatzea arduratsua izan dadin.
 - Udalak baso-lurrak erosi eta herri-lur gisa kudeatzea.
 - Ingurunea jarduera ekonomikorako aprobetxatzea, turismo arduratsua sustatuz.
-
- Cuidar el entorno natural, mantenerlo limpio y controlar la gestión de actividades económicas con el fin de que sea responsable.
 - La adquisición de suelo forestal por el Ayuntamiento y gestionarlas en régimen de bienes comunales.
 - Aprovechar el entorno para la actividad económica, fomentando el turismo sostenible y responsable.

***Ante el desmantelamiento de Osakidetza,
necesitamos servicios de salud suficientes, dignos y de calidad
en Barrika, reforzando lo público.***



ERRONKA DEMOKRATIKOA

Otra forma de gobernar es posible

Parte-hartzea erdigunean jarrita, udal funtzionamendua irauli Abrir las puertas del ayuntamiento al servicio de la gente, fomentando la participación

- Udalaren lan egiteko modua aldatzea, herritarren inplikazioa bilatuz, talde politikoaren arteko elkarlana sustatuz, zinegotzi guztien artean ardurak banatuz eta gaiak landu eta eztabaidatzeko foroak martxan jarritz. Hori guztia udalaren funtzionamendu eraginkorra lortzeko.
- Herritarren idazkiei erantzutea eta udalarekiko komunikazioa erraztea.
- Udaleko langile-taldea indartzea eta egonkortzea (udal idazkariaren lanpostua betetzea, beharren diagnostikoa eta lanpostuen balorazioa egitea...).
- Udal osoko bilkurak arratsaldean egitea, herritarren parte-hartzea errazteko eta sustatzeko.
- Osoko bilkurak auzoka txandaka egiteko aukera aztertzea (Elexalde, Goierri, Kantarrana...).
- Lan-mahai espezifikoak eta jarraipen-mahaiak sortzea arazo zehatzetarako, hala nola kirolak, feminismoa, enplegua edo trantsizio ekologikoa.
- Uribe Kostako beharrak eskualde mailan kudeatzea eta baliabideen kudeaketa gardena eta eraginkorra sustatzea.
- Cambiar la forma de trabajar del Ayuntamiento, fomentando la implicación de la ciudadanía, la colaboración entre los grupos políticos, la corresponsabilidad entre concejales y el trabajo y debate de los temas, poniendo en marcha foros colaborativos. Todo ello para lograr un funcionamiento eficaz.
- Dar respuesta a los escritos de la ciudadanía y facilitar la comunicación con el ayuntamiento.
- Reforzar y estabilizar la plantilla municipal (cubrir la plaza de Secretario/a, diagnosis de necesidades y la valoración de puestos...).
- Celebración de los plenos municipales por la tarde, para facilitar y promover la participación de las vecinas y los vecinos en los mismos.
- Analizar la posibilidad de realizar los plenos de manera rotativa por barrios (Elexalde, Goierri, Kantarrana,...).
- Crear mesas de trabajo específicas y mesas de seguimiento para problemáticas concretas como por ejemplo deportes, feminismo, empleo o transición ecológica.
- Promover una gestión comarcal de las necesidades y gestión transparente y eficaz de los recursos a nivel de Uribe Kosta.

AUZOEN AHOTSAK LA VOZ DE LOS BARRIOS

**ARTEPETA**

Galder Bilbao Gibelondo

«Errepide nagusira irteteko, askotan, zailtasunak daude, abiadura muga 80 kilometro ordukoa da eta kotxeak ziztu bizian datoz. Horretaz aparte, autobus geltokira igarotzeko ez dago zebra biderik eta batzutan larri ibiltzen gara».

**GOIERRI**

Goiuri Llanos Barbarias

«Adin ezberdinetako umeentzako erabilera anitzeko parke bat falta zaigu, futboleko edo saskibaloian aritzeko edota zabuak izango dituen. Baita Sopela, Urduliz eta Plentziarekin segurtasunez lortuko gaituen bide bat, bidegorria, bizikleta zein oinezkoentzako».

**ARRIAGA**

Igortz Ardeo Zaldua

«Faltan botatzen dugu zarama-ontzien gunea garbitzea eta Arriagako bidean segurtasun handiagoa».

**LARRETXE**

Patxi Beitia Arrizabalaga

«El acceso desde la carretera general, la señalización del barrio y el estado de los caminos debe mejorarse. Asimismo, es necesario completar los contenedores de basura que faltan y deseable acercar al barrio la conexión al gas-ciudad».

**GARRAMUNE**

Eneritz Mota Alvarez

«Konponketa handia behar duen haur-parkea daukagu, zabuak gutxi dira, oso zaharrak eta apurtuak. Era berean, komeni da teilatu bat jartzea, haurrek euria egiten duenean erabili ahal izan dezaten. Ere mu horretan eraiki gabeko lurzatiak ere badaude, baina inork ez ditu garbi mantentzen, eta kanaberadi eta arratoien eta sugorrien haztegi bihurtzen dira».

**SAN TELMO**

Asier Garcia Zabala

«Se precisan medidas eficaces para hacer frente a los problemas de aparcamiento en verano. Además, necesitamos un cambio radical en el sistema de recogida de basuras, ya que en lugar de fomentar la separación, se consigue lo contrario. Reina la suciedad».

Esateko zaudete, entzuteko gaude. Tu opinión nos interesa

Instagram @ehbildubarrika

Twitter @BarrikakoEHBildu

Facebook EHBilduBarrika

Email barrika@ehbildu.eus

+info:



Maite duzun Barrika

EGINGO DUGU.



**Iker
Casanova
Alonso**

Bizkaiko
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

Bizkaia 2023-2027

BIZKAIAREN ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTU IRMOA EGITEN DUGU, ETA, IKUSPEGI HORI EGIA BIHUR DADIN, ANBIZIOZ ETA IKUSPEGI INTEGRAL BATEKIN LAN EGINGO DUGU. HORRETARAKO, LANA LAU ARLO NAGUSITAN EGITURATUKO DUGU: ENPLEGUA, EKONOMIA SUSTAPENA, INGURUMENA ETA POLITIKA SOZIALAK.

Bizkaia tiene que ser un territorio que se reinvente en torno a un modelo económico basado en la industria inteligente y sostenible, apostando por una economía industrial y del conocimiento; se debe vertebrar a través de un sistema de comunicación centrado en el transporte público, y reorganizarse urbanísticamente para alcanzar un diseño del territorio que combine armónicamente la actividad económica y la residencial, de tal forma que ofrezca a sus habitantes calidad de vida, un medio ambiente recuperado y la posibilidad de desarrollar proyectos vitales en un entorno de prosperidad, igualdad, justicia, cultura e inclusión.

***Bizkaia bidezkoa,
aurrerakoia, feminista,
ekologista, euskalduna...
eraiki nahi dugu!***



Reindustrialización inteligente

Tras una etapa en la que la industria parecía haber “pasado de moda” en favor de las economías de servicios, hoy se vuelve a reconocer de forma unánime el valor de una economía industrializada. La industria produce valor añadido. Los países y zonas industrializadas son más ricas que el resto. El empleo estable y generalmente bien remunerado que genera la industria es un factor de cohesión social. Bizkaia necesita recuperar la actividad industrial. Por eso hemos de apostar por una industria moderna, avanzada, tecnológica y que, además, incorpore la atención a factores sociales y medioambientales.



Politika sozial indartsuak eta zaintza ekosistemak

Pertsonen bizi baldintzak hobetuko dituzten politika berriak behar ditugu. Gaur egun, zaintza sistemako baliabideen hornidura eta antolamendua erreparasatu besterik ez da egin behar defizit handia dagoela egiaztatzeko (bai epeei dagokionez, bai ereduari dagokionez) eta pribatizazioa gero eta handiagoa dela ikusteko. Zaintza ekosistemak tokiko esperientzien garapenean oinarritzen dira, arreta eredu pertsonalizatuagoak sortzen laguntzeko, eredu malguak eta komunitarioak, jendarte berrikuntzatik pentsatuak, etxeko arreta bultzatuz eta jendarte eta osasun sistemen arteko sinergiak hobetuz.

Maite duzun Bizkaia

EGINGO DUGU.



Iker
Casanova
Alonso

Bizkaiko
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

*Zurekin batera,
inoiz baino gehiago
izango gara.*

Zuk bezala, Euskal Herria Bildun herri hobe batekin egiten dugu amets eta, horregatik, maite duzun Bizkaiaren alde egingo dugu. Aldaketak datoz, eta gure esku dago aukerak baliatzea. Belaunaldi berrien etorkizuna, osasun publikoa, adinekoen zaintza eta zaintzen dituztenen lan-baldintzak, enplegua, gure herrien etorkizuna, industria, bizitzaren garestitzea, etab. EH Bilduk konpromisoa eta konponbideak eskaintzen ditu. Jendearen ohiko arazoei aurre egiteko konponbideak eta hori posible egiteko konpromisoa.

¡Es posible!

ehbildu

🐦 @Iker__Casanova

🌐 bizkaia.ehbildu.eus